

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3561

EBAZPENA, 2026ko uztailaren 21ekoa, Portu, Itsas Gai eta Itsasertzaren zuzendariarena, Donostiako portuko ur-laminaren erabilerari buruzkoa.

Donostiako portuko ur-lamina bainatzeko eremu gisa erabiltzeak pertsonen segurtasunerako dakarren arrisku nabarmena kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legean araututako portu-jarduerekin bateraezina, eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak aplikatuz, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Donostiako portuko ur-lamina Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legean aurreikusitako portu-jarduerak egiteko baino ezin izango da erabili. Ondorioz, debekatuta dago portu horretako ur-lamina osoan bainatzea.

Bigarrena.— Ebazpen honetan jasotako debekua dagokion seinaleztapenaren bidez adieraziko da eraginpeko eremuan.

Hirugarrena.— Ebazpen honetan aurreikusitakoa ez betetzea arau-haustetzat hartuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legearen 63. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, eta arau horretan aurreikusitako zehapenak ezartzea ekar dezake.

Laugarrena.— Ebazpen hau Donostiako Udalari, Euskadiko Kirol Portuak erakundeari eta dagokion ertzain-etxeari jakinaraziko zaie, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 21a.

Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren zuzendaria,
KOLDOBIKA GOITIA MARKUERKIAGA.